

Sailkatu ezin dituzten bi itsas izaki aurkitu dituzte

Bizidunak sailkatzeko erabiltzen den sisteman kokatu ezin diren bi izaki aurkitu ditu Danimarkako Historia Naturaleko Museoko zoologo batek, Tasmaniako itsasoan. Onddo-itxura dute, zelulaniztunak dira, asimetrikoak, ge-

latinakarak eta milimetro gutxi neurritzen dituzte. *Dendrogramma enigmatica* eta *D. discoides* izendatu dituzte.

Berez, 1986an jaso zituen bi izakiak, 400-1.000 metroko sakoneran. Identifikatzen saiatzean, konturatu ziren ez

zeudela gaur egun ezagutzen diren inongo familiaren barruan. Adibidez, Cnidaria eta Ctenophora filumetako espezieekin antza badute ere (horien barruan daude koralak, marmokak, besteak beste), bereizten dituzten ezaugarriak dituzte.

Ikertzaileek nabarmendu dute, azken 15-20 urteetan, bitan edo hirutan baino ez dela gertatu antzeko zerbait, alegia, izaki sailkaezin bat aurkitzea. Bi espezie horiek sailkatzeko, familia berri bat sortu dute, Dendrogrammatidae, eta PLOS ONE aldizkarian argitaratu dute azterketa.

Artikuluari, bi espezieak deskribatzeaz gain, Ediacara periodoan bizi ziren medusoide batzuekin erlazioan egon daitezkeela jakinarazi dute —aipatzekoa da garai hartako fauna duela 500 milioi urte galdu zela—. Haien ustez, eboluzioan, Bilateria taldea baino lehenagokoak direla esan dute, baina historia ebolutiboan ulertzeko, zuhaitz filogenetikoan dagoeneko finkatuta dauden adar batzuk hobeto ezagutu beharko liritekeela ere adierazi dute. ●




Espezieen sailkapenean lekurik ez zuten itsas izakiak. ARG.: JORGEN OLESEN/PLOS ONE.

J izendatutako lekuan hartuko du “Iur” Rosettaren Philae ibilgailuak

ESAk jakinarazi duenez, dagoeneko aukeratu dute non “kometaratuko” den Rosetta zundaren Philae ibilgailua. J puntua izango da lekua, kometaaren “buruan” dagoen eremu jakin bat.

Rosetta zundak abuztuaren 6tik 24ra, kometa hurbildu ahala, jasotako irudietan oinarritu dira lekua aukeratzeko. Bost hautagaiaren artean, aho batez aukeratu dute J puntua, seguruen hura delakoan. Ordezkoa ere aukeratu dute, C puntua.

Philae-k ehun kilo pisatzen ditu, eta hura 67P/Churyumov-Gerasimewko kometa azalean jartzeko “benetan zaila”



J puntuan kometaratuko da Rosettaren ibilgailua. ARG.: ESA/ROSETTA/MPS FOR OSIRIS TEAM MPS/UPD/LAM/IAA/SSO/INTA/UPM/DASP/IDA.

dela aitortu dute ESAkoek. Operazioa azaroaren 11n egitea aurreikusten dute, eta, dena ondo ateratzen bada, parerik gabeko informazioa eskuratzeko aukera emango du, lehen aldiz jasoko baitira kometa baten datuak, azaletik bertatik.

Besteak beste, kometaaren jatorria, egitura eta bilakaera ezagutzeko espero dute, eta J puntuaren azterketak jatorrizko materialei eta nukleoari buruzko informazio baliogarria eman dezakeela aurreratu dute. ●